GAL

Amedo eta Dominguez akusatuen aulkian

«Arriskugarria zelakoan» ukatu du Frantziak mertzenarien trasladoa

Mertzenari horien adierazpenei baliotasuna ematea eskatu dio Castellsek epaimahairi

Frantzian preso dauden GALeko mertzenariak Amedo eta Dominguezen kontrako epaiketan izateko eskaerari ezetza eman diote agintari judizial frantziarrek, «pertsona esanguratsu horien trasladoak berarekin daraman arriskuagatik». Egoera honen aurrean, mertzenarien adierazpenei baliotasuna eman diezaion eskatu dio Miguel Castells abokatuak epaimahaiari.

MADRIL

Entzutegi Nazionalak egin zion Frantziako Justiziari mertzenari hauek epaiketan ahoz deklara zezaten beharrezko deialdi eskaera. Ezezko erantzunaren berri Miguel Castells, akusazio partikularreko abokatuak eman zuen atzoko saioaren hasieran. Henri Nallet Fantziako Justizia ministroak joan zen ekainaren 26an Espainiako Tomas de la Quadrari igorri zion gutunaren edukia azaldu zuen Castellsek, berak herenegun Pabeko Apelazio Epaitegian eskuratu zuena.

Frantziako gartzeletan dauden mertzenarioak trasladatzeari ezetza ematearen arrazoia «horrek berarekin daraman arriskua» da eskutitz horretan esaten denez. Hain zuzen ere, GALeko mertzenari horiek «pertsona esanguratsutzat» jotzen dituztelako Frantziako agintari judizialek.



Philippe Labade mertzenari portugaldarreren deklarazioak irakurri ziren atzo.

Miguel Castellsek azaldu zuenez, gai penalean Estatuen artean dagoen nazioarteko komenioaren babespean jarri da Frantzia. Trasladoaren kontra agertzeko pisuzko arrazoiak daudela uste du bertako Justiziak, eta arrazoi horiek direla eta ezetza emateko eskubidea ematen dio aipatutako komenioak.

Egoera honen aurrean, Frantzian gartzeleraturik egon eta epaiketara joan ez diren GALeko mertzenarien adierazpenei erabateko baliotasuna eman diezaien eskatu zion Castells abokatuak epaimahaiari.

Bere ustez, Justizia ministro frantziarraren eskutitzak garrantzi handia du. Lekuko bati egin zitazioa ezinezkoa edo oso zaila denean, sumarioan egindako adierazpenak epaiketan egindakoak bailiran hartzeko doktrina duela Epaitegi Konstituzionalak gogoratu zuen akusazio partikularreko abokatuak.

Eskutitz horren kopia bat eskuratu dezala ere eskatu zion epaimahaiari Castellesek eta autoetan sar dezala. «Eskutitz hori funtsezko froga izan daiteke epai kondenatorio posible baterako» azaldu zuen.

MERTZENARIEN SUMARIOKO DEKLARAZIOAK

GALeko mertzenarioek Lisboan egindako deklarazioak eta Frantzian gartzeleraturik daudenenak ere atzo irakurri ziren epaiketan. Jose Amedo eta Michel Dominguez errugabetzat jotzen zituzten eskutitzak idatzi zituztela onartu zuten lehenengoek. Eskutitz horiek Baltsar Garzon, Entzutegi Nazionaleko epailearengana, Espainiako Justizia Ministeritzara eta ABC egunkariara bidali zituzten.

> Amedo eta Dominguez errugabetzen zituzten eskutitzak idatzi zituztela onartu zuten mertzenari portugaldarrek.

Jorge Ferreira Cisneros mertzenariak Amedo eta Philippe Labade ez zituela ezagutzen esan zuen, eta Luso Correiraren bidez ezagutu zituen Eduardo eta Ricardo izeneko poliziek kontratatu zutela. Espainiako Gobernuaren ordezkari zirela esan zioten, mertzenari honen deklarazioak dioenez. Izen bereko poliziak aipatu zituen baita ere Rogelio Carbalhok. Labadek berriz, Amedo eta Dominguez ez zituela ezagutu dio, baina Eduardo eta Ricardo izeneko bi poliziekin bildu zela.

Frantziako mertzenariek berriz Amedo eta Dominguez ezagutu zituztela deklaratu zuten, baina beren izenen berri ez zutela esan zuten gehienek. Odette Rouseey, Patrick Pironneau eta Marie Pironneau bat etorri ziren Thomas eta Antoine izeneko bi polizia espainiarrekin elkarrizketatu zirela esaterakoan. Argazkietan ezagutu zituzten.

Landa: «GALen epaiketak Estatu terrorismoa frogatzen du»

GALeko epaiketak «Espai[illegible] Estatu terrorismoaren kasu [illegible] mena ematen dela frogatzen» d[illegible] ziurtatu zuen Kepa Landa H[illegible] eurodiputatuak, herenegun S[illegible] bourgeko Legebiltzarrean Europ[illegible] giza eskubideen egoerari buruz[illegible] zen eztabaidan.

Era berean, HBko parlamenta[illegible] esan zuen Amnistia Internazion[illegible] erakundeak «behin eta berriro» [illegible] latu duela Estatu Espainola, tortu[illegible] eta tratu txarrak direla eta. Gain[illegible] «NBEk berriki kaleratutako txos[illegible] batek frogatu du Espainia dela [illegible] munitateko azkena giza eskubide[illegible] gaia errespetatzerakoan», era[illegible] zuen.

Karmelo Landaren hitzaldi[illegible] Duarte Cendan eta Juan Maria B[illegible] dres PSOE eta EEko eurodiputatu[illegible] erantzun zioten. Lehenaren esa[illegible] tan, «nere herrian hauteskunde [illegible] keak daude, zu hemen egoteak fr[illegible] gatzen duen bezala; nere herri[illegible] prentsa askea dago, Landa jaun[illegible] hemen esan duen guztia salatzek[illegible] eta nere herrian Epaitegi indepe[illegible] dienteak daude giza eskubideak d[illegible] fendatu ahal izateko, beste erakun[illegible] batzuetara jo barik».

«ETA erakunde terrorista babes[illegible] eta defendatzen duen alderdi bate[illegible] partaide da bera —segitu zu[illegible] PSOEko diputatuak—. Legebilt[illegible] honi ez diot gogorarazi behar azk[illegible] hilabeteetan sei ume eta lau pert[illegible] nen heriotza eragin duela».

Bandresek, bere aldetik, Land[illegible] esandakoaz lotsatuta zegoela ad[illegible] razi zuen. «ETA defendatzen dut[illegible] ez dauka eskubiderik giza eskub[illegible] deez hitzegiteko», leporatu zion.

Eztabaida hau Ken Coates G[illegible] Eskubideen azpibatzordeko leh[illegible] dakariak eskatu zuen.

I Aren urteko txostena

Irunberriko gertaeren ikerketa eragotzi egin du Goardia Zibilak

DONOSTIA

Goardia zibil batzuk Irunberriko gertaerak argitzeko ikerketa eragozten saiatu ziren, Amnistia Internazionalak bere urteko txostenean baieztatzen duenez. Amnistia Internazionalak atzo eman zuen ezagutzera 1990. urteari dagokion txostena.

Amnistia Internazionalak «kezka handiaz» jarraitzen dio Irunberriko gertaeren ikerketari. 1990eko ekainaren 25ean, Jose Luis Hervas Goardia Zibileko sarjentoa eta Jon Lizarralde eta Susana Arregi hilik suertatu ziren.

Aministia Internazionalaren txostenak polizi egoitzetan eta gartzeletan gertatutako tortura eta tratu txarren kasuak jasotzen ditu. Eta horien artean, Barcelonako espetxean 1990eko maiatzean gertatutakoa. Orduan, gartzelako goardiek hamazazpi pertsona jipoitu zituzten motin baten ondoren gartzelaz aldatu zituztenean. Txosten honetan, Tomas Linazak jasan zituen torturak eragiteagatik goardia zibil batzuek, Rafael Masa teniente koronela tartean, jaso zuten kondena aipatzen da.

Tomas Linaza 1981ean atxilotu zuten lege antiterroristapean eta, beranduago, libre utzi zuten kargurik gabe.

Paredesek Espainiako Gobernuak duela gutxi izenpetu duen Schengen-eko akordioa kritikatu zuen. AIren ustez, errefuxiatu politikoen kaltetan doa aipatutako akordioa. «Estatuak aire konpainien esku uzten du herrialde jakin batean zein sar daitekeen erabakitzea», adierazi zuen Jose Manuel Paredesek.

Beste puntu kritikagarri bat azpimarratu zuen AIko bozeramaleak: akordio honen arabera, Estatu batek pertsona bati errefuxiatu politikoaren estatutua ukatzen baldin badio, eskatu duenak ezin izango du status hori bereganatu akordioa sinatu duten beste Estatuetan.

'Garraxi Isilak' indarkeriaren kontra «altxatzeko» kanpaina jarri du martxan

BILBO

'Gesto por la Paz-Garraxi Isila' taldeak kanpaina bat jarri du martxan «Euskal Herrian bakearen aldeko hiritarren erreakzioa» lortzeko asmoarekin. «Biolentzia politikoaren eragileen eta bere ondorioak jasan dituztenen integrazioa» bultza dezatela eskatu die euskal instituzioei. Talde honetako kideek esandakoari erantzunez, «Garraxi Isila Barne Ministeritzaren eranskina» dela adierazi zuen Jose Mari Olarra Herri Batasunako kideak.

'Garraxi Isila' taldearen iritzian beharrezkoa da «zabal eta sakon, bakean oinarritutako kultura garatu, sustatu eta bultzatzea, eta hiritarren elkarbizitzaren oinarriak berreskuratzea, Euskal Herriak 23 urtetik gora biolentziarekin izan duen elkarbizitzaren ostean».

Koordinadora honek atzo baietsi zuen, ezin dela espero biolentziaren arazoa instituzioetatik konpontzerik eta horretarako antolatu du aipatu kanpaina, fase ezberdinetan «Altxa! Euskal Herriko bakearen alde zutitu zaitez!» lemarekin garatuko dena.

Kanpainaren helburu nagusia, antolatzaileen arabera, gizarte sarean eragina izatea da, hiritarrek biolentziaren aurkako jarrera garbiak har ditzaten, eta beldurrik gabe adierazi. «Utzikeriak konplizitate kutsua dauka», adierazi zuen Javier Madrazo 'Garraxi Isilako' eledunak.

OLARRA: «BARNE MINISTERITZAREN ERANSKINA»

Jose Mari Olarra, HBko kidearen esanetan, Garraxi Isila taldea «Barne Ministeritzaren eranskina da eta Javier Madrazo, Corcueraren ikaslea». Kanpaina honen bidez, Espainiako Barne eta Justizia Ministeritzaren «politika errepresiboa legitimatu» nahi du koordinakunde honek Olarraren ustez.

«HB, euskal presoak edo negoziazioari buruz egin dituzten adierazpen



Javier Madrazo

guztiak bat datoz azken egunot[illegible] buruzagi sozialisten aldetik entzun[illegible] ari garenekin» dio Olarrak atzo [illegible] baldu zuen agiri batean. «Kurios[illegible] da Jauregiren edo Duceren mo[illegible] txuzko hitzen ondoren, eta Nafarro[illegible] ko atentatuaren ondoren etorzi[illegible] gaineratu du HBko parlamentari[illegible]